

Zarautzen, urtarrilaren 21ean.

PRENTSA OHARRA

Hezkuntza Sailak Zarauzko Ikastolarekin izandako zenbait jarrera eta jokabide onartezinak dira.

2023an gure aurka abiatutako jazarpen eta murrizketak muturreraino eramán ditu Hezkuntza Sailak eta, ondorioz, kalte kuantitatibo eta kualitatibo larriak pairatu ditugu eta pairatuko ditugu.

Gaurko prentsurrekoaren bitartez egindako salaketa dagokion testuinguruan kokatzeko, beharrezkoa iruditzen zaigu, lehendabizi, azken urteetan matrikulazio prozesuan izan diren aldaketen berri ematea eta aldaketa hauek bideratu dituzten gertakariak azaltzea.

Matrikulazio prozesua 2023az gero:

2023ko urtarrilean, Hezkuntza Saila lantzen ari zen hezkuntza legearen testuinguruan 2023-2024 ikasturterako ikasleak matrikulatu eta onartzeko agindua argitaratu zuen. Agindu horretan, berrikuntzak txertatu zituen aurreko aginduekin konparatuz. Berrikuntza horiek, ustez, ikasle zaurgarrien banaketa orekatua egitea eta eskaintza eskaerara egokitzea zuten helburu. Horretarako, lehen aldiz zaurgarritasun indizearen nondik norakoak ezarri eta baremaziorako irizpide berriak ezarri zituen. 2023ko matrikulazioa beraz, irizpide eta helburu horien baitan eramán zuen aurrera Hezkuntza Sailak eta ikasleen onarpenerako baldintzak aldatu egin ziren.

Zarautzen 4 ikastetxe daude, eta aldaketa txiki batzuk gorabehera, urtero antzeko matrikulazio ehunekoak mantentzen dira. Ikastolarena %30aren bueltan egoten da beti.

2023ko otsailaren 6an, 23-24 ikasturteko matrikulazio epearen aurretik, Zarauzko Ikastola Hezkuntza Saileko plangintza arduradunengana zuzendu zen lehen aldiz, ustez akats bat izan zena zuzentzeko eskatuz. Hain zuzen, ordura arteko plangintzan, HH etaparako 9 lerro izan zituen esleituta ikastolak, hau da, 3 gela HHko maila bakoitzeko. Baina urte horretan, arrazoi aparenterik gabe, Hezkuntza Sailak 2 lerrotara mugatu zuen

ikastolaren HH2ko matrikulazioa. Arrazoi aparenterik gabe diogu, hain zuzen, herrian aurreko ikasturtean baino 20 ume gehiago zeudelako matrikula egiteko adinean (159 haur 2022an, 179 haur 2023an).

Datu objektibo horiek kontutan izanik, eta urteroko ehunekoei eutsiz gero, 3 gela izateko adina matrikula eskaera jasoko genuela azaldu genion Hezkuntzari.

Handik 2 astetara jaso genuen ezezko erantzuna. Ikastetxeen Lurralde arduradunaren argudio bakarra hauxe izan zen: 23-24 ikasturteko HH3koen plangintza, 22-23 ikasturtean itundutako kopuru bera izatea zela irizpidea.

Eta gure galdera da: *ikasturte batetik bestera herrian 20 haur gehiago egoteak ez dio irizpide horri eragiten? Zarauzko jaiotza tasaren joera positiboak ez dio eragiten irizpide horri?*

Iritsi zen matrikulazio garaia eta gure usteak bete egin ziren: 55 familiak hautatu zuten ikastola beraien seme-alabentzat, herriko familien %30. HH2ko 3 lerro behar genituen, indarrean zeuden ratioetan oinarrituta. Eta une horretatik aurrera, erreklamazio eta alegazio segida amaiezin bati eman zitzaion hasiera. Ikastolak, Ikastolen Elkarteak, ikastolatik kanpo geratuko ziren familiek eta ikastolako gainerako familiek hainbat bidetatik eskatu zioten Hezkuntza Sailari egindako planifikazio akatsa zuzentzeko eta aplikatzeko Hezkuntza sailburuaren 2022ko abenduaren 21eko AGINDUAREN II. eranskineko laugarren ataleko 3. puntuan esaten dena:

*“Eskatzaileen zerrenda argitaratzearekin batera, Hezkuntzako lurralde-ordetzari agindu honek araututako onarpen-prozesuan parte hartzen duen ikastetxe bakoitzari jakinaraziko diote maila eta hizkuntza-eredu bakoitzean matrikulatu ahal izango duten talde-kopurua eta behin betiko ikasleen gehieneko kopurua. **Zenbaki hori EGOKITU eta DOITU egingo da, ikastetxe jakin horrek maila eta hizkuntza-eredu bakoitzean LEHEN AUKERA gisa aukeratu duten ESKAERA KOPURU GUZTIAREN ARABERA**”.*

Eta gure galdera da: Zergatik ez ditu Hezkuntza Sailak berak ezarritako irizpideak betetzen? Zergatik ez da gure kasuan zenbaki hori egokitu eta doitu?

Hala ere, berriz ere, alegazio horiekin, ezezkoa jaso genuen, hotz eta lehor, inongo arrazoiketarik gabe eta gure argudioei entzungor eginez.

Gertakarietara itzuliz, **2023ko maiatzean** ulertu genuen alferrikakoak izan zirela ordura arteko ahalegin guztiak: Hezkuntza Sailak erabakita zuen 8

familia horiek ikastolatik kanporatzea. **Bide administratiboa jorratzen jarraitu arren, egoerari aurrez aurre heltzeko unea iritsi zitzaigun.**

Ordura arteko hilabeteak gorabeheratsuak izan baziren, hurrengoak are zailagoak. Hezkuntza Sailak kanporatutako familiek ikastolako komunitatearen parte izateko nahia berretsi zuten, eta bilera amaiezinen ondoren, eta Ikastolen Elkartearen babesarekin, **Zarauzko ikastolako komunitateak (544 familia) erabaki zuen gure komunitatearen eta proiektuaren parte izan nahi zuen orori ateak zabaltzea.**

- 2024-2025 ikasturterako matrikulazioan, bigarren saiakera bat egin zuten familia horiek, eta kasu hartan 55 izan beharrean 58 izan ziren Zarauzko Ikastola hautatu zutenak, eta beste bizpahiruk ere adierazi ziguten ikastola hautatuko zutela, matrikulazio murrizketaren gatazka zabalik egon izan ez balitz. Berriz ere alferrikako erreklamazio eta alegazio sorta. **EZEZKOA** Hezkuntza Sailak. Baina Ikastolak bere bidea berretsi du; ez dizkio inoiz inori ateak itxi eta ez dizkio itxi nahi.

Azken bi ikasturteotan, hainbat ikuskaritza egin dira gure ikastolan. Horietako ikuskapen batzuk gogorak egin zaizkigu. Langileak, gurasoak eta haurrak miatuak sentitu gara, zelatatuak, erregistratuak. Ikuskapen horren ondorioz, Hezkuntza Sailak gu zigortzeko prozedura jarri zuen martxan. “Adiskidetze-mahaia” izena eman zioten bilera batera deitu gintuzten. Han, aldaketarik ia onartzen ez zuen proposamen itxi bat aurkeztu ziguten. Eta prozedura horri amaiera eman berri zaiolako deitu dugu gaurko prentsaurrekoa.

- Salatu nahi dugu prozedura hau boterekeriaz garatu duela Hezkuntza Sailak.
- Salatu nahi dugu sinatu duguna ez dela akordio bat izan, ume horiei, beraien familiei eta ikastolari berari kalte larriagoak ekiditeko ez baitzegoen hura sinatu beste aukerarik.
- Salatu nahi dugu ustezko “akordio” horretara iristeko ezarri zaizkigun “Adiskidetze bilerek” ez zutela ezer adiskidetzetik.
- Salatu nahi dugu ezarri zaigun 140.000€-ko isuna bidegabea dela, ikastolak prozesu honetan ez baitu inolako diru-iruzurrik egin, inongo momentutan ez dugu ez-zegokigun diru publikorik jaso.

Hala ere, lasai gaude. Lasai gaude hartu genuen erabakiarekin. Eta gauza batek pozten gaitu: 8 familia horiek gurekin jarraituko dutela jakiteak. Diruz zigortu gaituzte, eta aurre egingo diogu. Gure komunitateak badaki halako egoerei aurre egiten, historikoki erakutsi du auzolana zer den badakiela, herrigintza zer den badakiela.

Herriak sortu zuen Ikastola. Herriak elikatu eta handitu du gure proiektua. Eta herriari zuzentzen gatzaizkio, herri gisara erantzun eta ezarri zaigun zigorrari aurre egiteko.

Ikastolak zapaldu eta indargabetu nahi gaituzte, baina ikastolak beharrezkoak direla sinisten jarraitzen dugu, Zarautzen eta Euskal Herri osoan euskarari, euskal kulturari eta euskal hezkuntzari ekarpena egiten jarraitzeko. Hezkuntza Sailaren jokabide hau ez da gure ikastolara mugatzen. Euskarari ardaztutako gure proiektua osoa zigortu dutela salatu nahi dugu, gure proiektua nazionala delako, gure ahalegina Zarautzik zazpi lurraldeetara hedatzen delako.

Badakigu ez gaudela bakarrik, badakigu gure mezua Euskal Herri osora zabalduko dela, iritsiko dela Tuterara, Oztibarrera, Oionera eta Balmasedara. Gaurtik aurrera, isunari aurre egiteko diru-bilketa ekintza desberdinak jarriko ditugu martxan. Horietako bat diru-ekarpen boluntarioak egitea izango da eta, horretarako, ondorengo kontu-korrontea zabaldu dugu:

ES73 2095 5212 1091 2486 7983

Bukatzeko, adierazi nahi dugu oso kezkatuta gaudela, arazo hau ez baita hemen bukatzen. Zarautzen jaiotza-tasa igotzen ari da eta herria hazten. Ezarri zaigun matrikulazio mugarekin 2023-2024 ikasturteko arazoa errepikatu daiteke behin eta berriz, eta etorkizuneko ikastola nabarmen ahultzen du.

Zarauzko Ikastolak, gaitasuna, indarra eta gogoa ditu bertan hazi nahi duen ikasle oro hartzeko. Eta jakina da: euskarak arnaguneak behar ditu. Eta gurea bezalako arnagunea hazteko inolako aukerarik gabe uztea, euskararen biziraupenerako atzerapauso larria da.

Guk gure egitekoa oso argi daukagu. Zarauzko Ikastolan euskara Euskal Herriko txoko guztietara zabaltzeko lanean jarraituko dugu. Euskal Herriaren luze-zabalean dauden ikastola eta euskararen aldeko proiektu guztiak babesten eta indartzen jarraituko dugu. Eta horretarako, beharrezkoa da Zarautzen ikastola indartsua izatea. Horretan lagundu nahi diguzuen guztioi gure eskua luzatzen dizuegu. Bakoitzak bere leku eta aukeretatik, Zarauzko Ikastola kolektiboki babesteko unea da hau.

Eskerrik asko.